DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Ekologia eta Osasun Publikoa
Ecología y Salud Pública

cristina enea FUNDAZIOA

# Gotzon Huegun artistak bisita gidatuak eskainiko ditu Cristina Enean duen SINKRONIA bere azken erakusketara

*· Bisitak otsailaren 23an izango dira, euskaraz nahiz gazteleraz, goizeko 11:00etan eta 12:00etan. Izen-emateak irekita daude www.cristinaenea.eus webgunean.*

*· Artistak berak emango ditu azalpen eta xehetasun guztiak bere lan artistikoari buruz orokorrean, eta martxora arte Cristina Enean ikusgai duen SINKRONIA erakusketari buruz, zehazki.*



**Donostia, 2025eko otsailaren 17a.-** SINKRONIA erakusketa da 2024/2025eko negurako Cristina Enea Fundazioak ikusgai duen erakusketa, Gotzon Huegun artista lasartearrarena. Erakusketak gizakiaren eta naturaren arteko harremana berriz aztertzera gonbidatzen gaitu, gure ingurune naturalarekin oreka bat berrezartzeko eraldaketa sakon baten premia nabarmenduz.

Gotzon Huegun eskultorearen lanen bidez, zientziaren, naturaren eta gizatasunaren arteko tentsioak eta harmoniak aztertzen dira, lotura horren konplexutasuna islatzen duten forma eta ehundura organikoak erabiliz. Mandasko Dukeen Jauregiko hiru aretoetako bakoitzak esperientzia murgiltzaile bat eskaintzen dio bisitariari: zientziaren eta naturaren arteko norgehiagoka, ekosistemaren barruan dugun tokiari buruzko gogoeta, eta sinkronia proposamenaren gailurra.

Urtarrilaren 24rako eta otsailaren 23rako Huegunen obraren nondik-norakoak jasotzen dituen dokumentalaren proiekzioak iragarri zituen Cristina Enea Fundazioak, eta halaxe izan zen urtarrilaren 24an, baina bigarren emanaldi baten ordez bisita gidatuak egitea erabaki da. *«Ikusi dugu erakusketa bisitatzen duten pertsonen aldetik eskaera bat dagoela bertako lanen eta piezen inguruko informazioa jasotzeko, eta iruditu zaigu aberasgarriagoa izango dela bigarren proiekzio baten ordez artistak berak eskainitako bi bisita gidatu antolatzea»*, azaldu du Cristina Enea Fundazioko erakusketa-proiektuen arduradun Eneko Calvok. Eta gaineratu du dokumentalak mundu zabaleko hainbat ikusentzunezko festibaletatik zehar egingo duela bidea aurrerantzean.

Bisita gidatuak otsailaren 23an izango dira, goizeko 11:00etan gaztelerazkoa eta 12:00etan euskarazkoa (leku mugatuak). Aldez aurretik izena eman beharra dago www.cristinaenea.eus webgunean.

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos: DONOSTIA SAN SEBASTIÁN · Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa · ETORKIZUNA ORAIN Es futuro
Babesle iraunkorra | Colaborador permanente: añarbe urak aguas

Calvok nabarmendu duenez, *«Huegunen formatu handiko lanek erronka egiten diote zientziaz dugun pertzepzioari, naturarekin zerikusirik ez duen zerbait bezala, biak elkarrekin oso lotuta daudela erakutsiz»*, eta horren inguruko hausnarketa eta gogoetak artistarekin berarekin partekatzeko aukera izango dute bisita gidatuan parte hartuko dutenek.

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Ekologia eta Osasun Publikoa
Ecología y Salud Pública

cristina enea FUNDAZIOA

# El artista Gotzon Huegun ofrecerá visitas guiadas en Cristina Enea, a su nueva exposición SINKRONIA

*· Las visitas serán el 23 de febrero, tanto en euskera como en castellano, a las 11:00 y 12:00 de la mañana. Las inscripciones están abiertas en www.cristinaenea.eus.*

*· Será el propio artista quien ofrezca todas las explicaciones y detalles sobre su obra artística en general y sobre la exposición SINKRONIA que expone hasta marzo en Cristina Enea.*



**Donostia / San Sebastián, 17 de febrero de 2025.-** SINKRONIA es la exposición que para el invierno 2024/2025 expone Fundación Cristina Enea, del artista lasartearra Gotzon Huegun. La muestra invita a reconsiderar la relación entre el hombre y la naturaleza, enfatizando la necesidad de una profunda transformación para restablecer un equilibrio con nuestro entorno natural.

A través de las obras del escultor Gotzon Huegun se analizan las tensiones y armonías entre ciencia, naturaleza y humanidad, utilizando formas y texturas orgánicas que reflejan la complejidad de esta conexión. Cada una de las tres salas del palacio de los duques de Mandas ofrece al visitante una experiencia inmersiva: la confrontación entre ciencia y naturaleza, la reflexión sobre nuestro lugar dentro del ecosistema, y la culminación de la propuesta de sincronía.

Para los días 24 de enero y 23 de febrero Fundación Cristina Enea anunció las proyecciones del documental que recoge los pormenores de la obra de Huegun, y así fue el 24 de enero, pero se ha optado por sustituir una segunda proyección por sendas visitas guiadas. *«Hemos percibido que existe una demanda por parte de las personas que visitan la exposición para recibir información sobre sus obras y piezas, y nos ha parecido más enriquecedor organizar dos visitas guiadas ofrecidas por el propio artista en lugar de una segunda proyección»*, explica Eneko Calvo, responsable de proyectos expositivos de Fundación Cristina Enea, quien ha añadido que, en adelante, el documental realizará un recorrido por diversos festivales audiovisuales del planeta.

Las visitas guiadas serán el 23 de febrero, a las 11:00 de la mañana en castellano y a las 12:00 en euskera (plazas limitadas). Es necesario inscribirse previamente en www.cristinaenea.eus.

Calvo ha destacado que *«las obras de gran formato de Huegun desafían nuestra percepción de la ciencia como algo ajeno a la naturaleza, demostrando que ambas están muy relacionadas entre sí»*, y que los participantes en la visita guiada tendrán la oportunidad de compartir sus reflexiones y reflexiones con el propio artista.